



Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 4an

## Euskal erakundeek laguntza Valentziara modu antolatuan eta benetako beharrei erantzunez bidaltzeko beharra berretsi dute

Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak, eta EUDELEk, Euskadiko Udalen Elkarteak, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren bitartez, **etengabeko harremana dute Valentziako Generalitatearekin**, zuzenean jakiteko zein diren kaltetutako pertsonen behar zehatzak.

Atzo, Euskaditik Valentziara atera ziren larrialdietako zerbitzuetako, suhiltzaileetako, DYako eta Gurutze Gorriko 80 pertsona baino gehiago, eta berreskuratze lanetan laguntzen ari dira.

**Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak eta EUDEL modu koordinatuan ari dira lanean, laguntza ahalik eta modu antolatuenean eta eraginkorrean irits dadin Valentziara.** Gainera, Valentziak bizi duen krisiaren aurrean, elkartasun-erantzun espontaneoak sortu da.

Euskadi beti izan da gizarte solidarioa, baita orain ere, eta bere erakundeak ere solidarioak dira. Baina elkartasunak egokia eta eraginkorra izan behar du, eta horretarako, ezinbestekoa da elkartasuna antolatua izatea. Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiak eta udalak **tokian bertan jarduten ari diren instituzio eta erakundeek esaten dutenari erreparatzeko** eskatzen dute. Horretarako, une honetan, lagundu nahi izanez gero, erakunde horiek emandako kontuen bidez dirua bidaltzea gomendatzen da. Aurrerago beste laguntza batzuk beharko dira, hondamendiaren eragina luzatu egingo baita.

Horrela, Valentziako Generalitateak lagundu nahi duten herritarren eta elkarten eskura atari hau jarri du **SOM SOLIDARITAT** DANAK kaltetutako pertsonentzako laguntzak eta dohaintzak bideratzeko. Eskari bera egiten du FEMP-ek (Federación Española de Municipios y Provincias) "logistika eta biltegiratze arazoak" direla eta.

Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta EUDEL-ek **herritarren elkartasuna eskertu nahi dute, Euskadi, beste behin ere, herri solidarioa dela erakusten ari delako.**

### ZER EGIN?

- Egoeraren eta beharizanen berri jaso
- Egoera hauei erantzuteko gai diren eta eragindako eremuetan presentzia duten erakundeei dohaintza ekonomikoak egitea.
- Egoera honetan laguntzen duten euskal erakundeetan boluntario egitea.

### ZER SAIHESTU?

- Gauzazko dohaintzak egitea
- Norbere kabuz jardutea, larrialdietan eta ekintza humanitarioan espezializatutako erakundeekin harremanetan jarri gabe
- Kaltetutako eremuetara joatea

### GOGORATU

- Elkartasunak eraginkorra eta denboran jarraitua izan behar du.